

## ITXAROPENAREN URTE SANTUA

"Itxaropenak ez du huts egiten" esan digu Fran-  
tzisko aita santuak. Eta 2024ko abenduaren 24an,  
Vatikanoko San Pedro Basilikako Ate Santua ireki  
zuenean, Itxaropenaren Jubileua inauguratu zuen  
ofizialki. Urte Santu hau 2026ko urtarrilaren 6an  
amaituko da Ate hori itxiz. Aita Santuak ere ezarri  
du elizbarruti guztietan 2024ko abenduaren 29tik  
2025eko abenduaren 28ra bitartean egingo da  
Jubileua. Eta Gipuzkoako Elizak, 75 urte betetzen  
ditu (lehen Gasteizkoaren barruan bait zegoen).

3 Ate ireki dira gurean gure Elizbarrutian.



## ZER DA JUBILEUA

Urte Santua edo Jubileu urtea, Jaunaren barka-  
mena eta norberaren berritze garaia da. Bertan,  
erabateko bihotz-berritzea irabazteko aukera  
dugu.

## ZER DA ATE SANTUA

Katedral, basilika edo  
santutegi bateko ate  
berezia da, normalean  
jubileu urtean bakarrik  
irekitzen direnak, erro-  
mesek, baldintza jakin  
batzuk betez, bertatik  
igaro eta jubileuaren  
induljentzia irabazteko  
aukera izan dezaten.



Ateak Kristo irudikatzen du. Berak dio: "Ni naiz  
atea: nigatik sartuko dena salbatuko da" (Jn  
10,9). Bertatik sartzean, fededunek Aitaren bar-  
kamen errukiorra lortu nahi dute, denak har-  
tzen dituen eta bakoitzaren bila irteten dena.



## OHARRAK

Gonbidatuta gaude guztiok Jubileu urte berezi  
honetan Itxaropenaren Erromes izatera. Eta hur-  
bildu gaitezke toki hauetakoren batera, bai tal-  
dean edo bai bakarka, bihotz-berritzea lortzeko.  
Elizbarrutian 4 eguneko ibilaldia egingo da Gipuz-  
koako 3 Ate Santuetatik pasatuz, lotura berezia  
egiteko. Nahi duenak egun bakarreko etapa egin  
dezake.

Ekainaren 19an Arantzazutik hasi eta ekainaren  
24ean, Donostiako Artzain Onean amaitzeko.



## ERROMESALDI TOKIAK

Lehen erromes gunea, Erromako San Pedro Basili-  
ka izan zen. Baina aurtan, gure Elizbarrutian ere  
gure Gotzaina On Fernando Pradok, beste 3 ireki  
ditu: Artzain Onaren Katedralean, Arantzazuko  
Santutegian eta Loiolako Basilikan. Horrela, Fede-  
dunek induljentzia hori, bertan lor dezakete.

## JUBILEUKO OTOITZA

Zeruan Zauden Aita

zure Seme eta gure anaia den

Jesu Kristorengan eman diguzun fedea

eta Espirituagan gure bihotzetan

isuria izan den karitatearen garrak,

esna dezatela gugan, zure Erreinuaren

etorreran itxaropenaren zorientasuna.

Zure graziak bihur gaitzala

gizadia eta kosmosa onduko duten

Ebanjelioaren hazien ereile zintzo,

zeru berriaren eta lur berriaren

uste oneko itxaropenean,

gaitz orenen indarrak gainditurik

Zure aintza betiko agertu denean.

Jubileuaren graziak

sustatu dezala Itxaropenean

Erromes garenongan

zeruko ondasunekiko lehia



eta isur dezala mundu oroarengan

gure Salbatzailearen alaitasuna eta bakea.

Zuri, betiereko Jainko bedeinkatu horri,

gorespen eta aintza gizaldi eta gizaldietan.

Amen.



Haur eta Nerabazaroko ordezkaritza

haurnerabe@elizagipuzkoa.org

